



Obra Social
Fundación "la Caixa"



Prensa oharra

"la Caixa" Gizarte Ekintzak eta Donostiako Udalak Al-Andaluseko zientzia ezagueraren garapena aztertzen duen erakusketa aurkezten dute.

Zientzia mundu andalustarrear

Europa Erdi Aroko ilunpean hondoratzen zen bitartean, ezaguerak loraldia izan zuen Al-Andalusean. Medikuntzak, astronomiak, matematikak eta filosofiak bat egin zuten jakintsu andalustarren gogo zabaletan, zeru-lurren eta bizitzaren ikuspegi osatuaren bila. Kordoba, Bagdad-ekin batera, mundu islamdarraren kultura erdigune bihurtu zen, eta zientzia ezaguerak garapen handia eta goi maila nabarmena erdietsi zituen Espainia musulmanean (Al Andalus), IX eta XIV. mendeen artean. Antzinatasunaren ondarearen oinordeko —bai ekialdekoaren (Txina, India, Pertsia), bai Mediterraneo egiptoar eta greko-erromatarraren—, zientziak laster hartu zuen Islamaren ezaugarri nabarmena. Europak XV eta XVII. mendeen artean bizi izan zuen zientzia-iraultzak, jakintsu gailen Galileo, Kepler, Koperniko edo Newton izan zituenak, Al Andalusen izan zuen bere prestakuntza aldia. Espainia musulmanak Penintsula osora eta Europara zabaldu zituen bere eragina eta maisutza hainbat zientzia arlotan: astronomia, medikuntza, matematika, ingeniarietza hidraulikoa, botanika edo arkitektura, besteak beste. *Zientzia mundu andalustarrear* erakusketak, zientzia-ikuspegi zorrotzetik, begiraldia egiten dio hainbat jakintsu andalustar inguratu zituen giroari. Ben Rusd (Averroes), Abu-l-Qasim Al Zahraui (Abulkasis), Maslama al Mayritu edo Al Zargalu (Azarquiel) eta bestek, "bila ezazu jakintza sehaskatik hilobira arte" islamdar esakunea (*hadit*) betez, funtsezko ekarpena egin zioten zientzia ezaguerari.

Zientzia mundu andalustarrear erakusketa "la Caixa" Gizarte Ekintzak antolatu du, Fundación de Cultura Islámica-ren ardurapean, eta Donostiako Udalaren lankidetzarekin. Saguesko zabalduan jarrita dagoen karpan bisitatu ahal izango da, 2008ko apirilaren 29tik ekainaren 4ra arte.

Donostia, 2008ko apirilak 29. - *Zientzia mundu andalustarrear* erakusketa bost partetan banatuta dago: Madinat al Zahrako Areto Aberatsean inspiraturiko birsorkuntza; astronomia behatokia; liburutegi, medikuntza bulego eta alkimia laborategia; lorategi botanikoa, eta Granadako alarife baten lantegiaren birsorkuntza. Erakusketari buru emateko, bisitariari Al-Andaluseko zientzia eta teknologiaz informazioa eskaintzen dion esparru bat, elementu interaktibo, zientzia erreproduktzio, maketa, grafiko eta ikus-entzunezkoak biltzen dituena.

Kalifen boterearen arrandia

Abderraman III.a kalifa omeitarrak eraiki zuen Madinat al Zahra hiri-jauregia 936 urtean, Kordobatik zortzi kilometrora. Mende laurdena behar izan zen hura eraikitzeko, eta Al-Andalusean une gorenaren erakusgarri behinenetako bat bihurtu zen. Hara aldatu zen kalifaren gortea, zerbitzu-hiritxo bat inguruan zuela, defentsa eta mantenua eman ziezazkion.

Lurraldeak berez zituen zer-nolako apartak probestuz, hiriaren goialdea gotorleku edo kalifaren alkazar bihurtu zen; erdialdean administrazio eta burokraziarako aretoak kokatu ziren, eta behealdean, berriz, meskita eta zokoa.

Barruan, Aretto Aberatsak zertu zuen Espainia musulmanak X. mendean lorturiko gizarte- eta politika-nagusitasuna. Arkitekturaren handitasunak, ataurike ugariak (landare txirikordatuak) apaingarri zituela, egundoko bikaintasuna ematen zion aretoari, eta denak zurtu zituen, gortesauak zein nonahiko diplomatiko eta politikariak. Erakusketan, gorentasun hura adierazi nahi da Aretto Aberatsean inspiraturiko birsorkuntza dela medio.

Astronomia, ortziaren zientzia

Astronomiak, ortziaren zientziak (*ilm al fayak*), garapen nabarmena izan zuen kultura andalustarrean. Otoitz orduak finkatzea, ilargiaren egutegia kalkulatzeko, Islam aurreko arabiarrek zeruari begiratzeko zuten tradizioa edo meskitak Mekara begira egotea, horrek denak egiten zuen bidezko interes handi hori. Astronomo andalustarren ondarean, astronomia jakintzen bilduma nabarmenekin batera (Sindhind-eko Taulak) eta aurkituz joan ziren konstelazio eta izar ugariekin batera, astrolabioen garapena eta esfera armilarra sartzen dira.

Astrolabioari esker, argizagi baten posizioa zehatz daiteke, ostertzaren gainean duen altuera neurtu eta, hori dela medio, higidura kalkulatu. Esfera armilarra unibertsoaren irudikapen grafiko zaharrena dela jotzen da. Behaketarako tresna bat da, argizagiaren ortzi-koordinatuak zehazteko erabiltzen dena. Izena, latineko *armilla* hitzetik dator (besokoa), eta bi eraztun finko ditu (armillak), Ostertza eta Meridianoa, eta zenbait armilla mugikor erdiko esferatxo edo gunearen (Lurraren) inguruan.

Tresna horiez baliatuta, Maslama al Mayriti, Al Zargalu (Azarkiel), Ben Jalaf edo Abu Marwan Ecijakoa eta beste jakintsu andalustar batzuek ezagupen garrantzitsuak lortu zituzten, eta haiei esker, ondoren, Kopernikok eta Keplerrek eredu geozentrikoaren ordeztasun ordua arte sakon sustraitua baitzen— paradigma heliozentrikoa ezartzeko oinarriak izan zituzten.

Matematiken alderako interesa astronomiaren garapenaren parean ibili zen Al-Andalusean. Mundu islamdarrari zor diogu gaur egun Mendebaldean erabiltzen diren zenbakien, eta batez ere 0 zenbakiaren, irakaskuntza. Haiek kultura hindutik hartua zuten. Aritmetika, aljebra, trigonometria eta algoritmoa (hitz hori, asmatu zuenaren izenetik dator: A-Juwarizmi) kalkulatzeko bide gisa, horiek denak ondare andalustarrak zientzia zehatzen eremuan utzitakoaren parte dira.

Medikuntza eta alkimia

Islamak medikuntza naturala garatu zuen hasieran, prebentiboa, osasun-gomendioetan oinarritua. IX. mendetik aurrera, ordea, medikuntzako obrak itzuli ziren Bagdadeko Jakinduriaren Etxean, eta horri esker, sendagile handiak sortu ziren, jakintza osoa eta osatua lantzen zutenak.

X. mendeko laburpen nabarmenenen artean, *Umekiaren sortzearen liburua* aipa daiteke, erreferentziazko iturria pediatrian eta obstetrizian, eta Abu-l-Qasim al Zahrauren (Abulkasisen) *Tasrif*, hogeita hamar liburuko tratatua. Horietako azkena kirurgiaz ari da eta kirurgia tresnen 200 marrazki dakartza; xiringa, guraizeak eta forzepsak, besteak beste.

Medikuntza tradizio andalustarrak Ben Zuhr-tarrekin jarraitu zuen. Sibiliako sendagile dinastia bat zen, eta Avenzoar gailendu zen denen artean, jan-edanen dietan berezitua. Ben Rusd (Averroes) kordobar sendagile eta filosofoak, berriz, behaketarako metodo esperimentalak garatu zituen, eta Aristotelesen teoriak txertatu zituen medikuntzan. Ben el Jatib granadarrak izurria kutsatzeko bideak aurkitu zituen, eta hartara gaitz horri aurre hartzeko bideak landu ziren.

Farmakologia, optika eta oftalmologiaren garapena (azkeneko horretan Al Outi —*Begiaren liburua*— eta Muhammad al Gafiqi —*Okulistaren gida*— nabarmendu ziren) aipamen berezia merezi dute medikuntzaren azterketaren barruan. Horren ondoan, arabiarrek ortodoxiak gaitzetsi ohi zituen diziplinei eskainitako arreta ere nabarmena da: astrologia, alkimia edo magia, esaterako. Alkimia laborategietan —horietako bat berregina da erakusketan—, filosofoen harriaren bila jardun zuten eta metalak urre bihurtzeko teknikak landu ziren.

Nekazaritza eta ingeniartza hidraulikoa

Al-Andalusek Mediterraneoko nekazaritza tradizioa eta arabiarrek Indian, Pertsian, Mesopotamian, Egipton bereganatutako ezagutzak biltzen asmatu zuen, eta, bereziki, Siria eta Palestina aldeko nekazaritza nabateoa. Jakintza horien garapenak, ekoizpena gehitzeak eta ura bidez banatzeak ekarri zuten Al-Andalusko nekazaritzaren ugaritasuna; Iraultza Berde izenaz ere ezagutzen da. Masustondoak, zitrikoen hainbat barietate, mingranondoak, datil-palmondoak eta bananondoak dira, besteak beste, garai hartan Penintsulan sartutako espezie berri batzuk.

Ben Wahsiya-ren *Nekazaritza nabateoaren liburua* eta Abu-l-Jayr-en *Nekazaritza tratatua*, zeinetan egileak hainbat ezagutza biltzen baititu landatzeko aroaz, izurriteez, ilargiak landareetan duen eraginaz, kimatzeez, txertoez edo hainbat laborez, hala nola arroza, lihoa edo palmondoa, bi liburu horiek dira bilduma-lan nabarmenenetakoak.

Nekazaritzaren loraldian zerikusi handia izan zuen ingeniartzak. Erromatarrek ureztatzeko egin azpiegitura, gainbeheran VIII. mendetik, ahalegin handiz berriro zuten musulmanek. Handik aurrera, gizarte andalustarrak ura biltzeko, eramateko eta urpetik bideratzeko sistemen sare bikaina hedatu zuen, nekazaritzaren ureztatze premietarako eta hirien hornikuntzarako. Erreten, ur-beso eta erretentxoaren sare zabalez baliatuta, presa txikietan geldiarazitako eta urasketan edukitako ura eramaten zuten lursailletara, aurrez putzu eta ibaietatik atera ondoren, ur-lasterreko norien eta abereek mugitutako ur erroten bidez.

Alhambra eraikitzea

Siria eta Mesopotamiako eragin sortaldekoa bere eginez, andalustar alarifiek (eraikuntza lanetako maisuek) mosaikoen teknika eta apainketa ikasi zuten, azulejuz estaltzeko antzearen aurrekariak alegia. Gerora, behe-ohol eta hormetan erabiliko zituzten.

Geometria eta aritmetika menderatzea baitezpadako gertatu zen arkitektura lanok egiteko, hiru dimentsioen efektuekin aberastuta, ura eta argia jakinduria handiz erabiliz. Azuleju-estalgarrietan geometria ereduak erabiltzea, elezahar kosmologikoen protagonismoa eta gangetako mokarabeak (igeltsuz edo zurez egindako albeolo esferiko eta prismatikoak): horra teknika goretsienetako batzuk.

Alhambrako Lehioen Patioa —hango aretoetako bat, eraikitze unean, berregin da erakusketan— dateke andalustar apainduren aberastasunaren erakusgarri handiena. Barrutiak, 124 koloma eta 11 arku motarekin, iturri bat du erdigunean, ahotik ura dariola dauden hamabi lehoik eratua. Lau alboak beste hainbat salatarako sarbide dira. *Mokarabeen* sala eta *Erregeena* egunez egiten ziren festetarako erabiltzen ziren; *Bi Ahizpen* eta *Abenzerrajeen* salak, berriz, gau bileretarako.

Erabilitako tresneriaren erakusgarriak eta azuleju-estalgari eta mokarabeen zatiak, bai eta apaingarri ezin hobekak lortzeko erabilitako kalkulu-orriak: ikusgai daude, besteak beste, alarife baten lantegian ezinbesteko ziren objektu horiek.

Informazio esparrua

Mundu andalustarraren zientzia aurrerapenei eta teknologiar buruzko informazioa erakusketaren esparruan bildu da. Han sakondu ahal izango du bisitariak, besteak beste, zientzia tresnen funtzionamenduan, teknologia hidraulikoan, eraikuntza teknikan eta medikuntzako errezetan.

Gazelen klepsidraren birsorkuntza bat (XI), hau da, ur-erloju dibertigarri bat —ontziak txandaka betetzen zaizkio eta horrekin batera higidura segida bat sortzen dute jauregiko eszena bat antzetzten duten hainbat iruditan—, da mundu andalustarrean lortutako teknologia sofistikazioaren erakusgarri.

Zientzia mundu andalustarrean

2008ko apirilaren 29tik ekainaren 4ra arte

Inaugurazioa: 2008ko apirilaren 29an, asteartearekin, 13:00etan.

Sagues-Grosetako hondartzako karpa

Donostia

Informazioa:

www.laCaixa.es

Tel. 94 4703707

Orduetgia:

Asteartetik ostiralera, 12:30-14:00 eta 18:00-21:00

Larunbat, igande eta jai-egunetan, 11:00-14:00 eta 17:00-21:00

Jai ez diren astelehenetan, itxita.

Eskola-bisitak: aldeztu aurretik lotu telefono honetan: 607 471020

Sarrera doan

Informazio gehiago eta material grafikoa nahi izanez gero:

Victoria Lobato. "La Caixa" Fundazioko Prentsa Departamendua

Tel. 629 732351

La Obra Social "la Caixa" y el Ayuntamiento de San Sebastián presentan una muestra en la que se analiza el desarrollo del conocimiento científico en al-Andalus

La ciencia en el mundo andalusí

Mientras Europa se hundía en la oscuridad de la Edad Media, en al-Andalus florecía el conocimiento. Medicina, astronomía, matemáticas y filosofía confluyen en las versátiles mentes de los sabios andalusíes en busca de una visión global del cielo, la Tierra y la vida. Córdoba se convierte, junto con Bagdad, en el centro cultural más importante del mundo islámico, y el conocimiento científico adquiere en la España musulmana (Al Andalus), entre los siglos IX y XIV, un gran desarrollo y un notable nivel de perfección. Heredera del legado de la Antigüedad, tanto del mundo oriental (China, India, Persia) como del Mediterráneo egipcio y grecorromano, la ciencia pronto adquirió una impronta islámica determinante. La revolución científica que vivió Europa durante los siglos XV a XVII y que contó con Galileo, Kepler, Copérnico o Newton como figuras más representativas, tuvo en Al Andalus su período de gestación. La astronomía, la medicina, las matemáticas, la ingeniería hidráulica, la botánica o la arquitectura fueron, entre otras, disciplinas científicas sobre las que la España musulmana irradió influencia y magisterio al resto de la Península y a Europa. *La ciencia en el mundo andalusí* recorre, con el más riguroso enfoque científico, la atmósfera que rodeó a sabios andalusíes como Ben Rusd (Averroes), Abu-I-Qasim Al Zahraui (Abulcasis), Maslama al Mayriti o Al Zarqalu (Azarquiel), quienes, cumpliendo el axioma islámico (*hadit*) "busca la ciencia desde la cuna hasta la sepultura", contribuyeron de forma esencial al desarrollo del conocimiento científico.

La exposición *La ciencia en el mundo andalusí*, organizada por la Obra Social "la Caixa" con el comisario de la Fundación de Cultura Islámica, y que cuenta con la colaboración del Ayuntamiento de San Sebastián, se podrá visitar en la carpa instalada en la Explanada de Sagües, del 29 de abril al 4 de junio de 2008.

San Sebastián, 29 de abril de 2008. - *La ciencia en el mundo andalusí* se divide en cinco escenarios expositivos: una recreación inspirada en el Salón Rico de Madinat al Zahra; un Observatorio astronómico; una Biblioteca, estudio médico y laboratorio de alquimia; un Jardín botánico, y la recreación del Taller de un alarife granadino. La exposición finaliza con un ámbito destinado a ofrecer al visitante la información sobre la ciencia y tecnología andalusíes mediante elementos interactivos, reproducciones científicas, maquetas, gráficos y audiovisuales.

La ostentación del poder califal

Levantada a ocho kilómetros de Córdoba por el califa omeya Abderramán III en el año 936, la ciudad-palacio de Madinat al Zahra tardó un cuarto de siglo en construirse y se convirtió en una de las representaciones más notorias del esplendor andalusí. Allí se trasladaría la corte del califa, rodeada de una pequeña ciudad de servicios para atender su defensa y mantenimiento.

Aprovechando las excepcionales condiciones naturales que el territorio ofrecía, la parte más alta de la ciudad se destinó a fortaleza o alcázar califal, en la media se situaron los salones administrativos o burocráticos, y en la más baja se erigieron la mezquita y el zoco.

En su interior, el Salón Rico materializó el apogeo sociopolítico alcanzado en el siglo X por la España musulmana. La grandiosidad de su arquitectura, con su profusa decoración de atauriques (entrelazados vegetales) confería al salón una magnificencia que asombró a cortesanos, diplomáticos y políticos de todas las latitudes. En la exposición se pretende transmitir aquel esplendor a través de una recreación inspirada en el Salón Rico.

La astronomía, ciencia del orbe celeste

La astronomía, ciencia del orbe celeste (*ilm al fayak*), tuvo un desarrollo sobresaliente en la cultura andalusí. La fijación de las horas de las plegarias, el cálculo del calendario lunar, la tradición de los árabes preislámicos de observar el cielo o la orientación hacia La Meca de las mezquitas justificaban tal grado de interés. El legado de los astrónomos andalusíes incluye, junto a notables recopilaciones de los saberes astronómicos (Tablas de Sindhind) y al nombre de las numerosas constelaciones y estrellas que fueron descubriendo el desarrollo de los astrolabios y la esfera armilar.

El astrolabio permite determinar la posición de un astro, midiendo su altura sobre el horizonte, de forma que se puede comprobar su movimiento. La esfera armilar, considerada la más antigua representación gráfica del universo, es un instrumento de observación empleado para determinar las coordenadas celestes de los astros. Su nombre procede del latín *armilla* (brazalete) y consta de dos anillos fijos (armillas), el Horizonte y el Meridiano, y varias armillas móviles en torno a una pequeña esfera o punto central (la Tierra).

Haciendo uso de estos instrumentos, sabios andalusíes como Maslama al Mayriti, Al Zarqalu (Azarquiel), Ben Jalaf o Abu Marwan de Écija aportaron importantes conocimientos que, con posterioridad, permitirían a Copérnico y Kepler sentar las bases para la sustitución del modelo geocéntrico, profundamente arraigado hasta entonces, por el paradigma heliocéntrico.

El interés por las matemáticas discurrió en Al-Andalus paralelo al cultivo de la astronomía. Al mundo islámico debemos la enseñanza de los números utilizados actualmente en Occidente, importados de la cultura hindú y, sobre todo, la existencia del número 0. La aritmética, el álgebra, la trigonometría y el algoritmo (término derivado de Al-Juwarizmi, su inventor) como método de cálculo, forman parte de la herencia andalusí en el campo de las ciencias exactas.

Medicina y alquimia

El Islam desarrolló en sus albores una medicina natural de tipo preventivo basada en recomendaciones para la salud. A partir del siglo IX, sin embargo, la traducción de obras médicas en la Casa de la Sabiduría de Bagdad posibilitó la aparición de grandes médicos, cultivadores de un saber integral.

Entre los compendios más destacados del siglo X cabe mencionar el *Libro de la generación del feto* de Arib Ben Said, fuente referencial en pediatría y obstetricia, y el *Tasrif* de Abu-l-Qasim al Zahraui (Abulcasis), un tratado de treinta volúmenes, el último de los cuales, dedicado a la cirugía, aportaba 200 dibujos de instrumentos quirúrgicos como la jeringa, las tijeras o el fórceps.

La tradición médica andalusí continuó con los Ben Zühr, dinastía de galenos sevillanos en la que sobresalió Avenzoar, especialista en dieta alimenticia. El cordobés Ben Rusd (Averroes), médico y filósofo, desarrolló métodos experimentales de observación y aportó a la medicina las teorías aristotélicas, y el granadino Ben al Jatib descubrió las vías de contagio de la peste, iniciando así su prevención.

El desarrollo de la farmacología, la óptica y la oftalmología (en la que destacaron Al Quti —*Libro del ojo*— y Muhammad al Gafiqi --*Guía del oculista*) merecen una mención especial dentro del estudio de la medicina.

Junto a esta, destaca también la atención que los árabes prestaron a disciplinas habitualmente reprobadas por la ortodoxia, como la astrología, la alquimia o la magia. En los laboratorios de alquimia, uno de los cuales se reproduce en la exposición, se cultivaron la búsqueda de la piedra filosofal y las técnicas de transmutación de los metales en oro.

La agricultura y la ingeniería hidráulica

Al-Andalus supo unir a la tradición agrícola mediterránea, los conocimientos adquiridos por los árabes en la India, Persia, Mesopotamia, Egipto y, en especial, de la agricultura nabatea de la región sirio-palestina. El desarrollo de estos saberes, el aumento de la producción y un equitativo reparto del agua generaron el esplendor agrícola andalusí, conocido como Revolución Verde. Moreras, diversas variedades de cítricos, granados, palmeras datileras y bananeros fueron algunas de las nuevas especies cuya introducción en la Península data de esta época.

El *Libro de la agricultura nabatea* de Ben Wahsiya y el *Tratado de la agricultura* de Abu L-Jayr, en el que el autor reúne conocimientos sobre las épocas de plantación, plagas, influencia lunar en las plantas, podas, injertos o cultivos como el arroz, el lino o la palmera, son dos de los compendios más destacados.

Al florecimiento de la agricultura contribuyó también la ingeniería. La infraestructura romana de regadíos, en deterioro desde el siglo VIII, fue restaurada por los musulmanes con esmero. A partir de ella, la sociedad andalusí tejió una excelente red de sistemas de captación de agua, conducciones y canales subterráneos, destinados al regadío agrícola y el abastecimiento urbano. A base de extensas redes de acequias, brazales y regaderas, repartían a los diferentes predios el agua remansada en azudes y retenida en albercas, previamente extraída de pozos y ríos mediante grandes norias fluviales de corriente y pequeñas aceñas de tracción animal.

La construcción de la Alhambra

Asimilando influencias orientales de Siria y Mesopotamia, los alarifes (maestros de obra) andalusíes aprendieron la técnica de los mosaicos y la decoración musivaria, antecedentes del arte del alicatado de azulejos que aplicarían posteriormente en zócalos y paredes.

El dominio de la geometría y la aritmética resultó clave en la consecución de estos logros arquitectónicos, habitualmente enriquecidos con efectos tridimensionales conseguidos mediante una sabia utilización del agua y la luz. La utilización de pautas geométricas en el diseño de los alicatados, el protagonismo de las leyendas cosmológicas y los mocárabes de las bóvedas (alvéolos esféricos y prismáticos de yeso o madera) fueron algunas de las técnicas más celebradas.

El Patio de los Leones de la Alhambra, una de cuyas salas en construcción se recrea en la exposición, constituye quizá la mayor muestra de la riqueza ornamental andalusí. La estancia, que posee 124 columnas y 11 tipos de arcos, tiene su punto culminante en una fuente central formada por doce leones de cuyas bocas mana

agua. Sus cuatro laterales dan acceso a otras tantas salas. La sala de los *Mocárabes* y la de los *Reyes* acogían fiestas diurnas, mientras que las de *Dos Hermanas* y *Abencerrajes* eran escenario de reuniones nocturnas.

Las muestras del instrumental empleado y los fragmentos de alicatados y mocárabes, así como las hojas de cálculo utilizadas para conseguir la perfección decorativa son algunos de los objetos, imprescindibles en el taller de un alarife, que se exhiben.

Ámbito informativo

La información sobre los avances científicos y la tecnología del mundo andalusí se concentra en el ámbito de la exposición. En él, el visitante podrá profundizar en el funcionamiento de instrumentos científicos, la tecnología hidráulica, las técnicas de construcción y las recetas médicas, entre otras.

Una recreación de la Clepsidra de las Gacelas (XI), un divertido reloj de agua cuyos recipientes se llenan alternativamente provocando al tiempo una secuencia de movimientos en una serie de figuras que protagonizan una escena palaciega, es una muestra de la sofisticación tecnológica alcanzada en el mundo andalusí.

La ciencia en el mundo andalusí

Del 29 de abril al 4 de junio de 2008

Inauguración: martes, 29 de abril de 2008, a las 13 h.

Carpa Explanada de Sagües-Playa de Gros
San Sebastián

Información:
www.laCaixa.es
Tel. 94 4703707

Horario:
De martes a viernes, de 12:30 a 14 h y de 18 a 21 h
Sábados, domingos y festivos, de 11 a 14 h y de 17 a 21 h.
Lunes no festivos, cerrado.

Visitas escolares: convenir previamente en el teléfono 607 471020

Entrada gratuita

Para más información y material gráfico:
Victoria Lobato. Departamento de Prensa de la Fundación "la Caixa"
Tel. 629 732351